

# Asisko gutuna

2011ko martxoa. 1. printzipioa. Eguneroko bilatzea

Jainkoarekin harreman pertsonala 29. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Asis Sareko kideek partekatzen ditugun lau printzipioetatik, lehenengoaz egiten dugu gogoeta eta otoitz hil honetan: "Eguneroko, Jainkoarekiko harreman pertsonala landu". Zer esan nahi du horrek? Zerbait oso zehatza: denbora hartu behar dugula, Berarekin geure baitan aurkitzeko.

Denbora hartu Bera maitatzeko, Berak maitatuak sentitzeko, Berari hitz egin eta entzuteko, otoitz egiteko. Denbora eta uneak hartu, Ebanjelioa modu harkorreetan irakurtzeko, isilik egoteko, entzuten jartzeko, Berari adieraziz joateko geure pozak, tristurak, zailtasunak, zalantzak, esker onezko sentimenduak, barkamen-premiak.

## Gogoetarako gaia

### Jesus

Jainkoa ez du inork inoiz ikusi. Jesusi begiratzea dugu Harengana hurbiltzeko daukagun modua. Eta Jesusi begiratzea zera da: orain bi mila urte Galilean jaiotako gizon baten bizitza irakurtzea. Jordan ibaian bataiatua izandako Jesusen urratsak jarraitzen ditugu. Jordanen hasten du ageriko bizitza eta pixkanaka bere egitekoaren aurkikuntza eginez doa.

Harekin basamortu-aldian, otoitz eta zailtasun-aldian, sartzen gara. Bertan Jesussek aurkitu egin behar du nolakoa den Erreinua, nondik datorren bere mezua. Jesusen hitzei jarraitzen diegu: zorionsuak behartsuak... atsekabetuak... beraiena izango da lurra. Horrela dena hankaz gora jartzen da: guk geure Erreinua garaipen eta boteretik amesten dugu beti, eta ez dugu ezer ulertzen. Denek garaile espero zuten Mesias azkenengo eta zerbitzari egiten da. Jainkoak txikiak maite ditu; Erreinua apal eta xume denetik sortzen da.

Jesusengan gauza bera da irakasten eta bizitzen duena. Maitasunaz hitz egiten digu, errukia bizi du sorkari ororengana, txikiei agerturiko Erreinuaz mintzo zaigu, non Jainkoak guzti guztiok maite gaituen. Kristo leiala da Aitarekin: leialtasunetik bizi du dena, agerpenez

hartutakoa du esaten duen hitza. Jesus ez da ezer Aitarenganako intimitate eta adoraziorik gabe; Jesus ez da ezer Jainkoari dion leialtasun erradikal eta absoluturik gabe. Apurka sartuz goaz Semearen misterioan. Eta Jesus beti Jainkoak hitzemanaz mintzo zaigu, Jainkoak digun baldintzarik gabeko maitasunaz.

Bere bizitzan zehar aurkituz doa, halaber, gure bihotzaren gogorra. Jainkoa ikusteko modua dugu Jerusalemara igoz doan gizon honengan, konturatzen delarik bere hitzak arriskutsu bihurtu direla, gure bihotza erruki eta barkamenerako gogorregia dela. Hunkitu egiten gaitu guztiei dien gupida eta maitasunak. Bihotza ukitzen digu Aitari dion leialtasun erabatekoak. Eta ia ezer ulertu gabe, fidatuz goaz, Pedro bezala, betiko biziarekin esaten duen hitzaz.

Handi egiten zaigu Jesusen heriotza eta Piztueraren misterioan sartzea, baina hortik dena zentzuz betetzen da. Jesus, Jainkoaren Seme hila eta berpiztua. Fedetik daukagu misterio horretara hurbiltzeko modua.

Jainkoa ez du inork inoiz ikusi; Aitaren baitan dagoen eta Jainko den Seme bakarrak eman digu haren berri (Jn 1,18).

## Ebanjelioko pasartea: Jn 14,1-10

«Ez izan kezkarik: sinetsi Jainkoarengan eta sinetsi niregan ere. Nire Aitarengan toki asko dago; horrela izan ez balitz, esango nizuekeen. Orain, zuentzat tokia prestatzera noa. Joan eta tokia prestatu ondoren, berriro etorri eta neurekin eramango zaituztet, ni nagoen lekuan zuek ere egon zaitzetzen. Zuek badakizue ni noan tokirako bidea.»

Tomasek esan zion: «Jauna, ez dakigu nora zoazen; nola jakin bidea?»

Jesusek erantzun: «Neu naiz bidea, egia eta bizia. Ezin da inor Aitarengana joan nire bidez izan ezik. Ni benetan ezagutuko baninduzue, Aita ere ezagutuko zenukete. Are

gehiago, ezagutzen duzue dagoeneko, eta ikusi ere ikusi duzue.»

Orduan, Felipek esan zion: «Jauna, erakutsiezaguzu Aita, eta aski dugu.»

Jesusek erantzun: «Honenbeste denbora zuekin, Felipe, eta ez nauzu ezagutzen? Ni ikusten nauenak Aita ere ikusten du. Nola diozu: «Erakutsiezaguzu Aita?» Ez al duzu sinesten ni Aitarekin bat eginda nagoela eta Aita nirekin? Nik irakatsi dizuedana ez dizuet neure kabuz irakatsi. Niregan bizi den Aita da bere salbamen-egintza burutzen ari dena.»

## Frantziskotar pasarteak

Asisko Frantzisko ezin daiteke uler Jesus gabe: hura osorik eta beti Jesusen erreferentzian dago. Frantziskoren espiritualitateak, bere bizipen nagusi eta barru-barrukoak, Jesus Kristorekin dute beti zerikusia. Frantzisko berbera, bere bizitza, Jesusen ikono bizia izan zen. Ondo baino hobeto ulertu zuen hori Zelanoko Tomas bere biografoak honela dioenean:

*«Berarekin bizi izan ziren anaiek ondo baino hobeto dakite nola Jesusi buruzko hitzak egunero, etengabe, zituen ezpainetan, zein gozo eta atsegina zen hari buruzko solasa, zein onbera eta maitasunez betea elkarriketa. Aboak esan, bibotzari gainezka zeriona esaten zuen, eta bibotz barnean zuen maitasun distiratsuaaren iturriak kanpora egiten zion borbor. Zenbat harreman-modu! Jesus zuen beti bibotzean, Jesus aboan, Jesus belarrietan, Jesus begietan, Jesus eskuetan, Jesus gorputzeko gainerako ataletan» (1 Zel 115).*

## Otoitza: Hau da Jesus Kalkutako Teresarentzat

«Hau da Jesus niretzat:

Hitza, gorputz eginda.  
Bizia ematen duen Ogia.  
Hitza, esana izateko.  
Egia, aldarrikatua izateko.  
Bidea, ibilia izateko.  
Argia, piztua izateko.  
Bizia, bizitua izateko.  
Maitasuna, maitatua izateko.  
Alaitasuna, elkarrekin banatzeko.  
Sakrifizioa, besteei bere burua emateko.  
Biziaren Ogia, ene janari izateko.  
Goserik dagoena, elikatua izateko.  
Egarri dagoena, ase izateko.  
Biluzik dagoena, jantzia izateko.  
Babesik gabea, jaso izateko.  
Gaixoa, sendatua izateko.  
Bakarrik dagoena, maitatua izateko.

Inork nahi ez duena, xeraz betea izateko.

Lepraduna, zauriak garbitzeko.  
Eskalea, irribarre bat emateko.  
Alkoholizatua, berari entzuteko.  
Adimen Urrikoa, babes emateko.  
Haur txikia, besarkatzeko.  
Itsua, bidean gidatzeko.  
Mutua, beraren orde hitz egiteko.  
Elbarria, berarekin bidea egiteko.  
Drogaren mende dagoena, adiskidantza konprenitua izateko.  
Prostituta, arriskutik atera eta bere adiskide izateko.  
Espetxeratua, bisitatua izateko.  
Agurea, zaindua izateko.  
Enetzat Jesus, ene Jainkoa da.  
Ene Senarra.  
Ene Bizia.  
Ene Maitasun bakarra.  
Jesus Den-dena da enetzat.»

## Gutuneko azken hitzak

Jainkoari buruzko galderari aurre egin nahi badiot, beharrezko dut erantzunaren bila ateratzea; eta beste hainbeste, erantzunari nire bila etortzen uztea.

## 2011ko apirileko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate apirileko erreferentzia guztiak:

1 Mk 12,28-34	7 Jn 5,31-47	13 Jn 8,31-42	19 Jn 13,21-33.36-38	25 Mt 28,8-15
2 Lk 18, 9-14	8 Jn 7,1-2.10.25-30	14 Jn 8,51-59	20 Mt 26,14-25	26 Jn 20,11-18
3 Jn 9,1.6-9.13-17.34-38	9 Jn 7,40-53	15 Jn 10,31-42	21 Jn 13,1-15	27 Lk 24,13-35
4 Jn 4,43-54	10 Jn 11,3.7.17.20-27.34-45	16 Jn 11,45-57	22 Jn 18,1-19,42	28 Lk 24,35-48
5 Jn 5,1-3.5-16	11 Jn 8,1-11	17 Mt 27,11-54	23 Mt 28,1-10	29 Jn 21,1-14
6 Jn 5,17-30	12 Jn 8,21-30	18 Jn 12,1-11	24 Jn 20,1-9	30 Mk 16,9-15

## Oharrak

·Asis Sareari buruzko informazioa hartu nahi izanez gero, edo gutun hau hilerio hartzeko izen emateko, deitu 646-214896 telefono zenbakira edo bidali mezua [asissarea@arantzazu.org](mailto:asissarea@arantzazu.org) helbide elektronikora.

·Asis Sarearen web gunean Gutun honen edukietan sakontzeko lanabes hau aurkituko duzu: "Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldea lan egiteko iradokizunak".

·Diru-ekarpenak egiteko kontu zenbakia: 0182 0326 15 0201516844 (BBVA).



Asis Sarea

[www.asissarea.org](http://www.asissarea.org)

# Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

## Asisko gutuna

2011ko martxoa. 1. printzipioa. Egunero bilatzea

Jainkoarekin harreman pertsonala 29. zenbakia

Hil honetan sareko lehen printzipiora gatoz berriro: “Egunero, harreman pertsonala landu Jainkoarekin”. Eta gutun honek proposatzen digu, aurki gaitzela Jainkoarekin Jesusen bidez, Jesus baita azken bitartekari Aitarengana hurbiltzeko eta Hura aurkitzeko.

### Jesus

Hil honetako gutuna lantzeko, hasi zaitez galdera hau zeure buruari eginez: nor da Jesus niretzat? Eta ez erantzun berehalaxe, ikasita daukazun erantzun batetik. Saia zaitez Berarekiko harremanetik ezagututako erantzun bezala egiten, Hura ezagutzera eraman zaituen harremanetik.

Jesus izan daiteke adiskide bat, jarraitzeko eredu bat, imitatu nahi duzun norbait. Edo izan daiteke, orobat, Harengandik bizitzeko norbait, nire bizitzan eta izatean zentro eta norabide bihurtu den eta Aitarekin aurkitzera eta Jainkoa ezagutzera naraman norbait.

Bigarrenez, zoaz Jesusen bizitzako momentuen oroimena eginez, momentu horietako zeinetan aurkitzen zaren Harengandik gertuago pentsatuz: jaiotzen denean, basamortuan, behartsuekin dagoenean, hiltzen denean...

Edo ezagutu ezazu behartsuak eta xumeak kontsolatzen eta sendatzen dituenen. Bihur zaitez haietako bat eta utz iezaiozu senda eta kontsola zaitzan. Eska iezaiozu utz diezazula Aitarekin duen intimitate-momenturen batean Berarekin egoten, horrela Berarekin batean zeure baitan konfiantza haziz joan dadin, Bera ezagut eta Beraren leialtasuna aurki dezazun, eta bihotza aldatzen utz diezaiozun.

Garizuman gaude, Pazkorako bidean. Baina Pazkoa bizitzeko, lagundu egin behar zaio Jesusi Jerusalemera bidean, eta heriotzatik igaro. Zer sentitzen duzu Hura gurutzean ikustean? Jesus gugatik, guztiongatik eta bakoitzarengatik, hiltzen da; baina Jainkoak ez du bere Semea eskutik uzten, piztu egiten du eta gu eta gutako bakoitza ere piztu egiten gaitu. Erabil itzazu Garizumako egun hauek Hura gurutzean ikusteko. Besterik gabe, Berari begiratu eta eskatu sar zaitzala Haren heriotzaren eta piztueraren misterioan.

### “Sinetsi Jainkoarengan eta sinetsi niregan ere”

Testuak honela dio hasieran: “Ez izan kezkarik”. Zeintzuk dira nire larriminak eta kezkak? Jesusek esaten

digu, Berarengan konfiantza jartzeko. Zergatik ematen digu hainbeste lan Berarengan konfiantza jartzeak? Tomas edo Felipek bezala, bidea jakin nahi dugu, Aita ikusi. Azpi azpian, kontrolatuta eduki nahi dugu dena, Berarengan konfiantzarik ez daukagulako.

Baina argi eta garbi esaten du Jesusek: “Neu naiz bidea, egia eta bizia”. Soilik Berarekin eta Berarengandik izango dugu Aitarengana heltzeko modua. Konfiantza eduki beharko dugu Berarengan, Beraren hitzak entzun eta Berari utzi bere bidetik gida gaitzan.

Irakur ezazu testua astiro, egizu hura otoitz, eta eska ezazu bihur dadila zuregan Egia eta Bizitza, horrela zu ere besteentzako bizia izan zaitezten, eta Hark egiten dituen egintzak egin Harengandik.

### “Zenbat harreman-modu Jesusekin”

Asisko Frantziskorengan ikus dezakegu Jainkoagandik egindako bizitza baten etsenplua eta lekukoa. Jauna atera zen Frantziskoren bila eta honek utzi egin zion hari bere bizitza gidatzen.

Jesus, Kristo, den-dena izatera etorri zen beretzat. Jesus aurkitzen zuen egiten, esaten eta sentitzen zuen guztian. Zein ederra den Jesus, Kristo, horrela bizitzea!

Zer sentitzen duzu Zelanoren testua irakurtzean? Esnatzen da zuregan, den-denean Jesus aurkitzeko gogo hori?

Utzi hitz horiei zeure baitan sartzen, eta utz Jainkoaren maitasunari zure erraiak, Frantziskorenak bezala, betetzen.

### Jesus, Kalkutako Teresarentzat

Erabil ezazu otoitz hau zeure egin arte, eta zuretzat Jesus nor den eta non dagoen ezagutzeko.

Egin otoitz, bertan ageri den pertsona bakoitzari aurpegia jarriz; horrek lagundu egingo dizu otoitza pertsonalizatzen, eta Jainkoa egun, egoera, pertsona eta momentu bakoitzean aurkitzen.